

ISTRIPUA

Agustin Arrieta Urtizberrea

Esnatu bezain laster ohetik altxa egin da. Istripua jazo zenetik horrela izan da, eta, seguru asko, horrela jarraituko du izaten etorkizunean, etorkizun hurbilean bederen. Ohituraren edo errepikapenaren poderioz hezurramitutako kontu bat dela pentsa genezake, ohituraren menpekoak baikara, baita Xabi ere, nola istripuaren aurretiko Xabi, hala ondorengoa. Baina Xabiren ama kezkatzen duena, ohitura berria baino gehiago, ohitura-aldaketa bera da, ohitura zaharraren eta berriaren arteko muga hori. Izan ere, istripuaren aurretiko Xabiri esna amestea gustatzen zitzaion, ohe gainean. Ondorengoa, ordea, begiak ireki orduko, automatikoki altxatzen da, eta sukalderrantz abiatzen da. Sendagileek aldaketa horietaz ez kezkatzeko esaten diote amari, gauzak datozen bezala onartu behar direla, eta Xabik orain ohitura berriak dituela, besterik gabe. Are gehiago, ohitura berrien sareak Xabi bera definitzen eta definituko du, Xabi berria. Baina amak ezin du horrelako abstrakzioerik egin, ohitura-aldaketa kokaturik dagoelako instant zehatz batean. Eta instant horrek amaren pentsamendua eta ama bera erakartzen ditu eta zurgatzen ditu etenik gabe, hustubide baten gisara.

Amak ezin dio pentsatzeari utzi: oroimenak hornituko al ditu Xabiren oraingo ametsak? Xabi korrika eta jauzika, bere aitaren atzetik, barrezka, negarrez. Posible al da oroimenak ametsak baino ez hornitzea? “Baina agian oroimena bera ere arraildu eta piztatu zen instant berean. Zalantzarik gabe, oroimenak nortasuna mugatzen du. Oroimena aldatuz gero, nortasuna ere bai”, pentsatzen du Xabiren amak.

Ama ere altxa egin da, Xabi altxa orduko. Itxura guztien arabera horrela jarraituko du izaten amak antzematen duen etorkizun ezin estuagoan. Xabi, pasilo luzetik barna, sukalderra joan da, egunero bezala, kostata, ibilera traketsen. Etengailua sakatu du, eta sukaldeko fluoreszenterantz lerratu du bere begirada, harik eta piztu den arte. Etengailua sakatetik fluoreszentea piztu den arte tarte bat dago, dudamuda tartea. Orduan eseri egin da, eguneroko aulkian; hobeto esanda, eguneroko kokapenean. Bere amak gosaria prestatuko dio: esnea, zorrotada bat kafe eta ogi xigortua, gurinez eta masustazko marmeladaz gantzutua. Goizeko bost t’erdiak dira.

Kaleko argiek baino ez dute argitzen gaua. Gogorra gertatzen zaio amari ordu horietan sukalderratzeari, baina ohituratzen hasia da. Xabi noiz esnatuko eta altxatuko den jakiteko araurik ez dago. Atzo 10etan altxa egin zen; herenegun 7ak eta laurdenetan. Ez dago araurik, ez dago erregulartasunik, ez dago jakiterik hurrengo egunean zein ordutan esnatuko den, ez dago, azken buruan, ezer planifikatzerik. Alferrik da; ebazpiderik ez duen hieroglifiko. Hieroglifiko tranpatia. Dena dela, gauza bat ziurra da, esnatzeko orduari dagokionez amaren ordutegia Xabiren ordutegi bera da. Amak esne belztua eta ogi gantzutua jarri dio mahai gainean. Xabi bezperako egunkariko orriak pasatzen ari da, etenik gabe, atzera eta aurrera, aurrera eta atzera. Xabik ez du esker oneko keinurik egiten, ezta, okerragoa dena, esker txarreko keinurik ere. Amak gogoan ditu Xabiren musuak eta besarkadak, garrasiak eta haserraldiak. Oroipen horiek min ematen diote. Istripuak amaren etxea izoztu edo gerarazi zuen. Musurik eta haserririk gabeko etxe bilakatu zen. Sendagileek esperantza ez dela galdu behar esaten diote, estatistikak Xabiren alde jotzen du-eta.

Gosaldu eta gero, sukaldetik Xabiren gelara joan dira, pasilotik barna; Xabi aurretik, ama atzetik. Pasilo luzeko sabaian bost bonbila daude. Orain bakarrak dirau piztuta. Besteak agortu ziren, banan-banan, eta amak ez ditu aldatu. Xabiren gelan sartu dira, gela berdean. Amak gorrotoa dio berdetasun horri. Gogorarazten dio berdez margotzea erabaki zueneko garaia. Pintoreak esan zion ume baten gelak kolore alaiak eskatzen dituela, eta berak berdea onartu zuen gela horretan. Lotarako jantzia erantzi, gaurpardela kendu eta paseoa joateko prestatu du Xabi. Gela berdetik kanporako atera joan dira pasilo luzetik barna, bonbila bakarraren argipean. Atea irekitzerakoan amak, egunero bezala, istripuaren eguna gogoratu du; gogoratu du nola Xabik ate hori ireki zuen kanpora ateratzeko, lagunekin elkartzeko. Larunbata. Gogoratu du nola atera zen Xabi, gogoratu du muxu hura, eta gogoratu du nola zegoen Xabi ate hori alderantzizko norantzan zeharkatu zuenean berriro, hainbat egun geroago, entzanda, berdez jantzitako gizonek lagunduta. Berde alaitik berde gorrotaturako pasabide laburra.

1. Epaimahia: Juan Gartzia eta Amaia Lasheras.

Amak lagundu dio eskailerak jaisten. Xabiren arnasketa baino ez da entzuten, arnasketa ozena eta azkarra, ihesean dabilenarena bezalakoa. Ezkaratzeko atea ireki eta etxe ondotik pasatzen den bidegorriantz abiatu dira. Arnasketaren hotsa, ordu horietako ixiltasun beltzaren aurka talka egitean, amaren bururantz doa oihartzun gisa, trinketean edozein norabidetatik etor daitekeen pilota baten gisara. Bidegorrian Xabi utzi du, bakarrik. Horrela aginduzuen sendagileak eta horrela betetzen du: “egunero paseo labur bat emateak on egingo dio Xabiri”.

Xabi abiatu da bidegorritik barrena; ez dio ezer esan amari, ez agurrik ez gero arterik. Xabik ikasia dauka bidea; egunero erlojuko hiru ordu laurden ematen ditu bertan. Erlojuari begiratzuz gero paseoa laburra dela esan daiteke. Amarentzat, ordea, luzea da; Xabirentzat, auskalo. Ama begiratzan ari zaio haren ibilera herrenari. Xabi jitoan dabilen itsasontzi zigortuaren gisara urruntzen ari da, izugarritzko tifoia jasan duen itsasontzi baten gisara. Gaur ez dago inor bidegorrian. Goizeko 6ak eta laurdenak dira, iluntasuna nagusi. Farolen argiek bakarrik apurtzen dute iluntasuna, eta Xabi haien argitasunean murgiltzen ari da laban zorrotzak haragi samurrean sartzen den moduan. Farolak ejerzitoko soldaduen gisara lerroan dira, formazioan, eta badirudi Xabiri agur eta ohore egiten ari zaizkiola. Ama bidegorriaren sarreran gelditu da, itxoiten, erlojuko hiru ordu laurden itxoiten. Istripua izan zenetik amaren denbora desitxuratu da. Norberaren denbora norberaren oroimenak eta norberak egiten dituen planek osatzen omen dute. Oraina, antza, iraganaren eta etorkizunaren artean gatibu bizi da. Amaren planen baitan Xabi zegoen. Orain, plan horietatik aienatzeko arriskuan dago Xabi, kukuka dabil, eta etorkizuna lausotzen eta estutzen ari da, eta, ondorioz, oraina olatu zorrotz baten gainean doan surflari baten modura dabil, erortzeko etengabeko arriskuan.

Goiko baserrian ez dago zaldirik. Goiz da. Beranduago zaldirak eta zaldizaina agertuko dira. Zaldi zaharrak martxa uniforme jarraituko dio zaldizainari. Moxala, berriz, distantzia uzten eta distantzia berreskuratzen ibiliko da, orain geldi gero trostan. Xabiren martxa uniforme da. Ohiko lekuan egin du lehenengo etenaldia, bidegorriaren ondotik igarotzen den ibaiko urjauzitxoaren parean. Egunitik egunera urjauzitxoa aldatzen da. Batzuetan indarrez doa ura, besteetan motelago; batzuetan emaritsu, besteetan ez. Xabi hari beha geratzen da egunero; edo akaso urak sortzen duen burrunba aditzen du. Akaso biak? Keinurik gabeko aurpegia da harena, eta ahotsik gabekoa. Batzuetan Xabik, orduaren arabera, Juan Marirekin egiten du topo. Juan Marik ere keinurik gabeko aurpegia du, maskara daramala dirudi, eta herren dabil. Garun-isuria, duela bi urte. Alabaina, solasean has-

ten denean, haserreak, nahiak eta pozak agertzen dira; entzuleak Juan Mariren aurpegia keinuz marrazten du. Juan Mari beti mintzatzen zaio Xabiri. Maskarak.

Bueltan dator Xabi. Goiz bada ere, lehenengo pertsonak abiatu dira paseoan. Ia denak emakumezkoak dira. Goiztiarrak dira eta, orokorrean, taldeka dabilta. Esan bezala, Xabi batzuetan beranduago altxatzen da. Orduan beranduago joaten da bidegorrira. Egun horietan Eguzkiaren argia nagusi izaten da, eta farolak desagertu egin direla ematen du. Ez dago agur eta ohore egiten duen ejerzitorik. Egun horietan gizonezkoek emakumezkoek txanda hartzen diete. Ia beti bakarka dabilta.

Xabi bidegorriaren sarrerara hurbiltzen ari da. Bertan Ertzaintzaren kuartela dago, eta han bertan, ate ondoan, egunero bezala, ertzain bat eraikina zaintzen ari da. Ertzainak Xabiren ibilbidea jarraitzen du, ibaiarena jarraitzen duen bezalaxe. Ohituratu egin da. Xabi ertzainaren parean gelditu da, baina ez ertzainari beha. Egunero bezala, Xabik goiko solairurantz lerratzen dubere begirada, baina gaur ez dago Julia. Oso goiz da. Gaur ez dago Ertzaintzaren eraikineko kristalak garbitzen dituen Julia.

Julia auzoko emakume ezaguna da. Behin baino gehiagotan Juliak ubeldurak izan ditu aurpegian; senarrak jotzen omen zuen. Hori zioten batzuek, gehienek. Auzokoek sarritan ikusi izan zuten Julia Ertzaintzaren eraikinean sartzen. Batzuek salaketa jartzera zihoala zioten. Bestetuek auskalo zer zioten. Senarra ere ezaguna zen. Beti alkandora bera edo berdina zeraman soinean. Beti mahuka motz. Beti zigarroa ahoan eta zakurrak ondoan, zakur ehiztariak. Gizon txeratsua, zakurrekin. Julia oso argala da, eta beti dabil zigarroa ahoan. Zigarroari zupada bat ematen dion bakoitzean ezinago argal dirudi. Egun batean senarra desagertu zen. Inork ez daki non dagoen. Geroztik, Julia Ertzaintzaren eraikineko kristalak garbitzen hasi zen. Xabiren amak ez daki zergatik begiratzen duen Xabik kuarteleko kristalak dauden aldera, alegia, Julia eskuarki dagoen aldera. Juliak kristalak garbitzen dituen badirudi bidegorritik barrena doan jende guztia agurtzen ari dela. Oso argala da Julia, argalegia. Baina gaur ez dago; goiz da.

Sei hilabete beranduago

Xabiren pausoak sumatu ditu amak. “*Badoa sukalderant*”, pentsatu du. Iratzargailuari so egin dio. Zortzi t’erdiak. “*Minutu pare bat gehiago geldituko naiz; Xabik, bitartean, egunkariko orriak pasatuko ditu*”, pentsatu du amak. Pasilo luzearen muturrean dago sukaldea, eta amak etengailua sakatzaren hotsa entzun du. Sukaldeko argiaren uhinak amaren gelara ailegatu dira. “*Jada Xabi eserita dago, eta atzoko egunkaria hartzen ari da*”. Bat-batean sukaldeko



argia itzali egin da. Ama harritu egin da. *Zer gertatzen da?* Sukaldeko ate ondoan dago ama. Ez da ezer ikusten. *“Ziur aski sukaldeko fluoreszentea agortu egin da”*. Amaren eskuineko eskua, sukaldeko horma haztatuz, etengailuari hurbiltzen ari zaio. Azkenean, etengailuari eman dio. Argia piztu egin da, eta Xabi eta sukalde osoa munduratu ditu. Xabi sukaldean dago, ohi bezala, egunkariari so eginez. *“Ez dut ulertzen zer gertatu den”*, pentsatu du amak. *“Txabusinaren bila itzuliko naiz gelara”*. Sukaldeko argiaren laguntzaz pasilo luzetik barrena bere gelara joan da. Txabusina janzten ari dela, sukaldeko argia berriro itzali egin da. Sukalderantz abiatu da pasilo luzetik

barrena. Sukaldeko ate ondoan dago ama. Berriro ere, sukaldeko horma haztatuz, etengailua sakatu egin du, eta argia piztu egin da. Xabi sukaldean dago, egunkariari so eginez, baina orriak pasatu gabe. Ama hurbildu zaio. Xabik egunkariko hildakoei buruzko orrian dauka iltzatuta bere begirada. Amak aurpegi ezagun bat ikusi du orri horretan, aurpegi argala, zigarrorik gabea. Argazkiaren ondoan *Julia Hermosilla Garmendia* izena irakurri du. Dotore dago.

Xabiren aurpegian ez da aldaketarik sumatzen, baina amak aurpegi horretan keinu bat marraztu egin du.

Agustin Arrieta Urtizberea.

Filosofia eta Informatika ikasketak burutu zituen EHU-n. Bertan filosofia irakaslea da. Doktore-osteko beka baten laguntzaz Stanford Unibertsitatean eman zuen urtebete.

Filosofiari dagokionez, hainbat lan argitaratu ditu. Besteak beste, bi libururen egilea da (*Egia Motak*. Bilbo: EHU, 2001; *Zertaz dihardu filosofiak?* Donostia: Jakin, 2002) eta Bertrand Russell-en *Filosofiaren arazoak* izeneko liburua itzuli du (Bilbo: Pentsamenduaren Klasikoak, 2002).

Ipuingintza dela eta, 2002an *Erreterria Ipuin Lehiaketan* erreterriar batek idatzitako ipuin onenaren saria irabazi zuen, *Gerraria* izenburuko ipuinaren bidez. Hurrengo urtean, eta lehiaketa berean, sari nagusia irabazi zuen, baita, ondorioz, erreterriar batek idatzitako ipuin onenaren saria ere. Ipuinaren izenburua *Istripua* da.

LOS INMIGRANTES CUATRO AÑOS DESPUÉS

Mikel Zabaleta

Hace cuatro años, en estas mismas páginas realizamos una serie de reflexiones acerca del carácter de Rentería como pueblo receptor de inmigrantes a lo largo de su historia y de la nueva inmigración del Tercer Mundo que empezaba a llegarnos. Significativamente titulamos aquel artículo "Los emigrantes del futuro" y planteábamos la necesidad de realizar una seria reflexión en torno a ello. La verdad es que cuando hablábamos del futuro no pensábamos que iba a ser tan cercano. Ya vislumbrábamos que el número de inmigrantes iba a crecer de forma importante en años venideros pero no que fuera a ser de forma tan rápida como parece que está ocurriendo.

Cuatro años después la inmigración es un tema que aparece a diario en los medios de comunicación y las referencias a los inmigrantes surgen en las conversaciones cotidianas de la gente, bien sea de forma secundaria (la presencia de un inmigrante en la situación de la que se está hablando) o bien de forma principal (la inmigración en sí como tema de conversación).

Efectivamente la inmigración, y todo lo que ella supone, se debate prácticamente a diario al igual que ya se hacía antes en otros países de Europa. La progresión del número de residentes extranjeros en España ha sido enorme en estos últimos años y, de constituir una anomalía dentro de la Unión Europea (por su bajo porcentaje) ha pasado a un nivel importante en muy poco tiempo, quizá en menos que en otros países. Al igual que en ellos, su distribución tampoco ha resultado equitativa y ha provocado una serie de contradicciones y conflictos que son las que provocan su presencia constante en los medios de comunicación.

Cuando se habla de extranjeros en España se habla –en gran parte y por razones obvias– de sudamericanos y de marroquíes, así como en Ale-

mania se habla de turcos, en Inglaterra de anglo-parlantes y en Francia de argelinos y africanos de lengua francesa. Su distribución dentro del territorio es muy desequilibrada, concentrándose de forma clara en todo el arco mediterráneo y en Madrid, donde ya se cifra en un 10% el porcentaje de extranjeros.¹

El País Vasco se encuentra entre las zonas menos atractivas para su instalación y solamente en ciertas zonas de la Ribera Navarra su porcentaje es bastante más importante debido a su presencia como temporeros agrícolas. Por lo que a la comunidad autónoma se refiere, parece ser que no llegan a un 2% y es en nuestro territorio –en Gipuzkoa– donde su presencia es menor.

Si nos centramos en nuestro espacio más cercano disponemos de datos de las poblaciones más importantes que nos rodean: Donostia e Irún.

En la capital de la provincia, el padrón de habitantes registraba con fecha de finales de 2003 un total de 6384 extranjeros, el 2,97% de la población total.² Comparando con los datos del año 2001 podemos ver que casi se ha duplicado desde entonces, cuándo solo eran 3988 (un 1,61% de la población). Por lo que respecta a Irún, en julio del 2003 eran 1282 personas, un poco más del 2% de la población.³

En Rentería es algo menor el número de extranjeros, a pesar de que las cifras de ambas localidades ya son bastante bajas y no llegan al 3% en ningún caso. En nuestra Villa a finales del año pasado solo había 655 extranjeros, un 1,71% de la población y el incremento también es, como en los casos anteriores, cercano al 100% aunque en mayor plazo de tiempo, cuatro años. A fines de 1999 había 353 y no llegaban al 1% de la población total, según nuestro padrón de habitantes.

1. Según los últimos datos proporcionados por la prensa este porcentaje también se alcanzaría en Baleares y en zonas de Levante y Cataluña. Su importancia quedó trágicamente reflejada cuando se descubrió que casi una cuarta parte de las víctimas del atentado de Madrid del 11-M eran extranjeros.

2. *Diario Vasco* del 17 de marzo de 2004. Página 17. Todos los datos que se citen referentes a Donostia provienen de este artículo.

3. Datos extraídos en lo referente a Irún de la página web del ayuntamiento: www.irun.org

Se suele argumentar en los medios de comunicación que la cifra real de residentes extranjeros es muy superior a la de empadronados pero no lo estimamos así por dos razones:

La primera es que la mayoría de inmigrantes se empadronan en un plazo relativamente breve de tiempo a partir de su llegada para poder tener acceso a la atención sanitaria y a la enseñanza pública, en el caso de los que tienen hijos. Para empadronarse, los ayuntamientos –por lo menos los de la zona que estamos hablando– no piden tener regularizada la situación en España y no es necesario tener el permiso de residencia. Es más bien al revés, el estar empadronado es uno de los requisitos que se suelen exigir para conceder el citado permiso, dado que es la mejor prueba que tienen para argumentar el tiempo que llevan residiendo entre nosotros.

Esto no impide, efectivamente, que haya una bolsa más o menos grande de no registrados por desconocimiento de las ventajas del padrón o por temor a la expulsión. Pero esta bolsa también queda amortiguada por la evidente existencia de duplicidades en los registros de padrón. Según el cambio de ley del padrón realizado en 1996 ya no existe la baja sino que son los diferentes municipios los que se comunican las altas registradas. Esto funciona mejor o peor, según los casos, y produce que dada la alta movilidad de residencia del colectivo inmigrante y su desconocimiento de nuestras leyes, es muy habitual que una persona esté dada de alta en más de un municipio. Es por todo esto que estimamos que la cifra de extranjeros registrada en los padrones es más cercana a la real de lo que se suele comentar en artículos y trabajos sobre el tema.

En cuanto a la distribución interna de este variado y multicolor conjunto de personas también tenemos datos reales que nos pueden confirmar o no impresiones previas. En Donostia, 1748 de los citados 6384 son ciudadanos de otros países de la Unión Europea (previa a la ampliación a Europa del Este) por lo que en principio son un grupo muy diferente del resto y a los que, posiblemente, ni siquiera deberíamos incluir al tratar el tema que nos ocupa. Por lo tanto son 4636 los extracomunitarios de la capital. De ellos, 3164 son hispanoamericanos (un 68,2%), 550 europeos del Este (un 11,8%), 377 *magrebíes* (un 8,1%), 256 asiáticos (un 5,5% de diversas nacionalidades), 140 norteamericanos (un 3% que por sus características habría que incluir con los comunitarios), 129 del África negra (un 2,7%) y solamente 20 de Oceanía. Esta clara mayoría de sudamericanos se divide en varias nacionalidades, aunque ecuatorianos y colombia-

nos son cerca de la mitad, seguidos de argentinos y cubanos. Por lo que respecta a Irún, no tenemos datos tan detallados pero colombianos y ecuatorianos también son las nacionalidades más numerosas con un 34,4% del total de extranjeros (aquí están incluidos los comunitarios). Los marroquíes son el tercer grupo importante con un 10,45% del total, porcentaje bastante más elevado que en la capital.

¿Y en Rentería? Las cifras son las siguientes:

TOTAL	655	100%
PAISES UE	175	26,71%
RESTO	460	73,28%
DE ESTOS ÚLTIMOS:		
AMERICA SUR	235	51,08%
MAGREB	111	24,13%
EUROPA ESTE	59	12,82%
RESTO AFRICA	46	10,00%
ASIA	23	5,00%
USA-AUSTRALIA	7	1,52%

Comparando con las cifras de Donostia, las diferencias son claras. La mayoría de hispanoamericanos es neta pero no tan aplastante y los *magrebíes* son el segundo grupo con el doble de presencia. También llama la atención la mayor presencia de inmigrantes del África Negra (más que el doble) mientras que asiáticos, europeos del Este y norteamericanos tienen menor presencia.

Si descendemos al análisis por países, las tendencias apuntadas se confirman. Ecuatorianos y colombianos son la mitad de los hispanoamericanos prácticamente empatados entre ellos. Si en Donostia hay bastantes más ecuatorianos que colombianos, en Irún la relación se invierte y en nuestro pueblo se equilibra. También es importante al igual que en ambas ciudades, la presencia de argentinos, cubanos, brasileños y venezolanos por este orden. Sin embargo cuando se habla de *magrebíes* nos estamos refiriendo casi exclusivamente a marroquíes: 101 de los 111 residentes. Entre los europeos del Este las cifras se reparten entre rumanos, búlgaros y ucranianos (los países más atrasados de este ámbito) mientras que los asiáticos son chinos y pakistaníes. Finalmente quedaría hacer constar que 29 de los 46 inmigrantes del África negra vienen de la antigua colonia española de Guinea Ecuatorial.

La distribución dentro de Rentería es otro aspecto interesante. Posiblemente, todos tenemos

alguna impresión pero un análisis por calles del padrón seguro que nos depara muchas sorpresas.

En primer lugar, hay que destacar que la zona de la Villa donde hay una mayor presencia de inmigrantes es el antiguo casco medieval, las calles en torno a la parroquia y la casa consistorial. Esto no es nada original. En Barcelona el barrio del Raval en la Ciutat Vella, en Madrid la zona de Lavapiés y en el propio Bilbao la zona de Bilbao la Vieja son claros ejemplos de este fenómeno. Son zonas degradadas y poco cómodas para vivir en muchos casos. Viviendas antiguas y descuidadas, las casas más antiguas de Rentería se habían ido vaciando durante los últimos años y últimamente vuelven a ser ocupadas por los únicos que parecen interesados en ellas: inmigrantes marroquíes y del África Negra.

Son calles con poca población (no llegan a mil las personas empadronadas en la zona alrededor de la Herriko Enparantza) y, por pocos que sean, la llegada de nuevos habitantes ha cambiado su fisonomía. No son muchos, un poco más del 4% de su población, pero tampoco distribuidos de forma uniforme. Se concentran en dos o tres calles de esta zona desapareciendo prácticamente del resto. En concreto, predominan en la zona más degradada: Calles Iglesia, Santa María y Herriko Plaza donde se acercan a ser un 10% de la población. La calle Iglesia tiene la proporción más alta de extranjeros, doce de sus 82 vecinos son de esta condición: un 14,63%

En segundo lugar y, seguramente sin que nos llame la atención, está el barrio de Iztietia, dónde –no lo olvidemos– está ubicada la mezquita de Rentería y una carnicería islámica. Se trata además de una zona mucho más poblada y joven que la anterior con lo que, aunque no en porcentaje, el número absoluto de extranjeros (aquí hay más sudamericanos) es mayor. La zona de la plaza de la Diputación y calles San Sebastián, Pasajes, Irún y Fuenterrabía son las que tienen una mayor presencia con un porcentaje global en torno al 3% de los empadronados.

Tras estas dos zonas, el resto de calles y áreas en los que hay una mayor presencia inmigrante constituyen un conjunto más desconexo entre sí en el que no hay razones tan claras para explicarnos su presencia.

Dentro de él hay calles del centro como Alfonso XI con casi un 6% de extranjeros, calles de Beraun y Galtzaraborda como la calle Ernio con más del 4% y zonas del área rural como la de Zentolen.


Para terminar habría que referirse también a las zonas sin extranjeros. Hay muchas calles en las que no hay un solo extranjero empadronado pero, a grandes rasgos, podríamos decir que son los

barrios más nuevos de Rentería donde su número es menor: Fandería, Gabierrota, Beraun en general, partes de la zona rural (zonas de Zamalbide y San Marcos), pero también algunas zonas del centro: Casas Nuevas, Olibet, Alaberga.

Éste sería, a grandes rasgos, un somero acercamiento al paisaje migratorio de Rentería. Nos podríamos detener en la división por edades y sexo, en la distribución por calles de las diferentes nacionalidades.... pero, bueno, no me cabe ninguna duda de que éste será un tema cuyo interés va a ir a más en los próximos años. Cada vez hablaremos más de él y de todo lo que conlleva.

Hace cuatro años no nos planteábamos muchas cosas de las que ahora discutimos cuando hablamos de inmigración. El debate sobre el Islam y la presencia pública que debe tener en nuestra sociedad nos quedaba muy lejano. La inseguridad ciudadana, el racismo, el peligro de que la escuela pública se convierta en un “guetto”... todo ello parecía ajeno a nuestra sociedad siempre inmersa en sus viejos debates identitarios. Ahora aparecen de forma tímida, pero dentro de otros tres o cuatro años habrán ido a más, sobre todo según la progresión que haya tenido el crecimiento de esta población.

Es hora de iniciar el debate, sin prejuicios y sin tics xenófobos, pero también sin falsos progresismos: y rā abie –co último rar esp.



GURE ERRALDOI ETA BURUHANDIAK BARAÑAIN ETA IRUNEN

Jose Luis Insausti

Iazko ekainaren 29an, Orereta-Errenteriako Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa, Barañain nafar herrian ospatu zen Erraldoi eta Buruhandien kontzentrazioan parte hartzera gonbidatua izan zen, Barañaingo jai nagusiak eta konpartsaren sorreraren 25. urteurrena ospatzearren.

Gure konpartsak izan zuen harrera zoragarria izan zen eta ibilbidean zehar txaloak areagotuz joan ziren, erraldoiak dantzatzen ikustearekin batera. Baina, txaloaldirik handiena, konpartsa guztiak Udaletxeko Plazan elkartu zirenean gertatu zen, megafonia bidez Euskal Herriko puntu desberdinetatik etorri ziren konpartsen aurkezpena egin zutelarik. Orereta-Errenteriako konpartsa aipatu zenean, izugarrizkoak izan ziren konpartsa kideei eta laguntzaileei eskainitako txaloak. Denok hunkitu ginen, jarraian Miguel Erkis, Imanol Etxeberria eta Unai Erkis erraldoi eramaileek, ikusleen gozamenerako koordinazio bikain eta ikusgarriko bi dantza

eskaini zituzten, erraldoiak lagunduz buruhandiak estrategikoki antolatuta zeudelarik Joxe Cruz Sarasola, Juantxo Arrieta, Ina Rufo eta Jose Luis Insaustiren eskutik; eta nola ahaztu Ereintza Elkarteko Txistulari Banda, Ixiar Busseloren batutapean, koordinatu eta erritmo guztiak maisutasunez zuzenduak. Benetan diot, harro egon behar dugu gure konpartsarekin, hori izan baitzen Barañaingo biztanleen sentimendua eta horrela jakin arazi ziguten, konpartsa guztiak egun eder hau anaiarteko bazkari batekin bukatu zutelarik.

Konpartsak zuen beste konpromiso bat, Irungoa zen abuztuaren 2an bertako Euskal Jaien Mendurrena ospatzeko. Egun horretako kontzentrazioan jende gehiagok parte hartu zuen.

Goizetik jada, konpartsa guztiak San Juan Enparantzan elkartu ginen, jende asko gerturatu zitzaigularik; haurrek miresmenez begiratzen zituzten erraldoiak. Ukitu nahi zituzten eta aldi berean





negarrez ari ziren ikaraturik. Koloreak ikaragarriak ziren leku desberdinetatik iritsitako erraldoiei esker, beti ere buruhandiek babestuak.

Izugarria izan zen Colon Pasealekutik hainbeste eta hain desberdinak ziren konpartsak ikustea. Beste behin ere gure konpartsak oso maila altua erakutsi zuen, abesti desberdinak joz. Ibilbidean zehar gure herriko bizilagun ugari ikus ahal izan genituen, batzuk Irunen bizi direlarik, baina denek hunkiturik txalo egiten zuten gure konpartsa beraien aurretik igarotzean.

Erraldoien eramaileak egun horretan Miguel Erkis, Iñaki Badiola, Unai Erkis, David Garcia eta Imanol Etxeberria izan ziren eta buruhandien eramaileak Imanol Etxeberria (semea), Eric Sanchez, Ion Imaz, Julen Alcala, Mikel Martinez eta Lander Tolosa.

Ikusten dugunez azken urte hauetan gure konpartsa Erraldoi eta Buruhandien kontzentrazio eta desfile ugarietara deitua izan da, eta horregatik aurten ere 2003an eginiko saioen aipamen hau egin nahi nuen Oarso Aldizkarian.

Bukatzeko, eskerrak eta zorionak eman nahi dizkiot, Erraldoi eta Buruhandien konpartsako partaide guztien izenean, Miguel Erkis gure lagun maite eta handiari 1964. urte horretatik konpartsan eginiko bere ibilbideagatik, eta omenaldi moduan lerro hauek eskaini nahi dizkiot.

Aurten gure erraldoiek 85 urte beteko dituzte, herriari emandako 85 urteko bizia eta urteak aurrera doazen heinean gure erraldoienganako miresmena handitzen doa, geroz eta maiteagoak direlarik. Geroz eta maiteagoak dira Miguel bezalako pertsoniei esker, konpartsaren buru 40 urtez aritu delarik, lehenik buruhandien eramaile eta

gero erraldoien eramaile gisa; 40 urtez hain maite dituen pertsonaiei bizia eman die.

Santiago egunaren arratsaldea Herriko Enparantzan, Miguel biziko duen une hunkigarrietako bat izango da, Erraldoi eta Buruhandien konpartsaren eramaile ofiziala izateari agur esango baitio, baina ziur naiz bertan bilduko direnak eta Orereta-Erreterria herriak, Erraldoi eta Buruhandien konpartsan eginiko lana eskertzen jakingo duela.

2004ko Maddalena hauek Miguelentzat ahaztezinak izango dira, hala nola, oreretarrentzat ere uztailearen 24an Landare Elkarteak antolatutako Erraldoi eta Buruhandien VII. kontzentrazioa bere omenaldia izango baita eta espero dut herriak bere bizilagun guztiekin eta Katalunia, Soria eta Euskal Herritik datozen konpartsa ezberdinekin disfruta ditzala.



Erraldoiak

Ez daitezela beren kaxetan gordeta geratu!
“Erraldoiak” dauden lekuan festa dagoelako,
“Erraldoiak” dauden tokian alaitasuna dago,
“Erraldoiak” dauden lekuan bizitza dago.

Miguel Erkisen omenez.

